

¡GERO ARTE!



Gure laguntasuna zan beziñ aundia biziziñanean izan da nere da-
mua illtzeranean.

Ezgera orrengatik denbora askoan bat bestearen urrutian egongo.
Laister emen utzi gaituzunak ere, zure bidean joango gera alkarganatu
gaiten Jaunak sinisten degunarentzako aukeratuta dankan tokian.
Gero arte! bada, ¡Arzác!

SERAPIO MUXIKA.

¡ARZAC!



Arzak donostiarraren
Itz-neurtu samurrak
Eztitu zituezan
Euskeraren lurrak.
Iruchuloko itzketa
Artzonti, gozoa,
Antonon ezpañetan
Zan entzutekoa.
Biotz gaitzik gabea,
Gaisorik sufritzen,
Bere asmogustiak
Zerura biurtzen,
Antortu zun benetan
Kristau sinismena...
¡Jauna eman bezaio
Betiko atsedena!

JUAN KARLOS GERRAKOA-K